

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1989ko Urtarrilak 27, 8. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

### Labeko Koba desagertzeaz egon den aztarnategia



*Lan gogor hau kontu handiz egin da*

Labeko Koba gure artean ezagun bihurtu da azken urteetan. Baliteke komunikabideek askotan aipatzeagatik izatea baina bere garrantzia kontutan izanik ondo merezitako entzutea lortu du. Laster sahesbide edo barianteko lanen eraginez desagertu egingo da baina bertan zeuden aztarna guztiak atera ondoren. Goi Paleolitos garai-ko koba adierazgarri hau

Ipar Euskal Herrian dauden aztarnategien eta kantauri aldekoen arteko zubi bihur daiteke. Aranzadi elkartekoak koban urtebete inguruan lanean aritu ondoren jadanik bertan zeuden aztarna gehienak berreskuratu dituzte.

(10. or)

### ORAIN ETA HEMEN

#### Euskara Poloniara

Musakolako bizilagun batek, Zdzislaw Blezienek, euskal gaiez bi liburu argitaratu ditu Polonian.

(6. or.)

#### Gaztetxeko kontzertua suspendi arazia

Larunbatean Gazte Asanbladak antolatutako kontzertua Udalak suspendi arazi egin zuen. Asteazken zehar, bataren edo bestearen alde, asko eztabaidatu da.

(7. or.)

#### ELKARRIZKETA

#### Juan Carlos Irizar: "niretzat musika bizitza da"

Konpositore, pianojole eta orkestra-zuzendari oinartiar honekin solasean.


(17. or.)

#### KIROLAK

#### Juan Bautista Azkarate, "Mondragonés", frontoietako jauna eta jabe

"Mondragonés", bere indarragatik eta kantxan egoten jakiteagatik pilota munduko mito bat izan zen.

(19 or.)



# Arrasate

## Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako ospitalea (gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz .....	458744
------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
Bergara .....	.....

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	792072
Zubillagako Eskualde Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	798777
---	--------

## 27 OSTIRALA

Rock kontzertua, "Tijuana in blue", "Los Rotos", eta "Subterranean Kids" taldeekin.

Bergarako Frontoian, 10,30 etan.

— Zinea: Alai: "El principe de las tinieblas"

Novedades (Bergara): "Willow".

— Goardiako farmazia: A. Azkoaga.

## 28 LARUNBATA

Txalaparta emanaldia. Euskal Tokian (AED). 7etan.

— "Arrasate Musikala"ren Kontzertua: Pablo Sorozabalen omenez. 10,30etan, Ámaya Antzokian. Sarrera: 300 pta. Programa: 4. Sinfonia, "Trajiko" (Franz Schubert); "Ruslan eta Ludmila" (M.I. Glinka); "Maite"-Zortziko, "Katuska", "Gernika" (Pablo Sorozabal). Orkestazioa: Juanito Arzamendi

— Zinea: Alai: "La insoportable levedad del ser"

Novedades (Bergara): "Willow".

— Goardiako farmazia: S. Español, San Andres.

## 29 IGANDEA

"Herriaren borrokaz Lemoiz apurtu". Eguzkik antolaturiko Lemoizeko zentral nuklearraren aurkako martxa. Autobusak goizeko 10etan Arbolapatatik irtengo dira. Interesatuak, aurrez eman izenak Irati taber-

nan. Martxa eguerdiko 12etan irtengo da Plentziako Astille-ros Plazatik, azkenik, Arminzara 1,30ak inguruan heltzeko.

— Antzerkia: "Ur" taldearen "Remora" izenekoak. Bergarako Compañía de Marían, 8etan. Sarrera: ikasleek, 200; gainerakoek: 400 pta

— Zinea: Alai: "La insoportable levedad del ser"

Novedades (Bergara): "Willow".

— Goardiako farmazia: M. Corcuera, Elcano.

## 30 ASTELEHENA

Zinea: Alai: "La insoportable levedad del ser".

— Goardiako farmazia: J. A. Irizar, Erguin, 1.

## 31 ASTEARTEA

Zinea: Alai: "La insoportable levedad del ser"

— Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina, 32.

## 1 ASTEAZKENA

Mahai Ingurua: Zaldibarreko frontoia. Monterronen, 7etan. Antolatzailea: AED

— Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Magdalena, 3

## 2 OSTEGUNA

Zine-Klub: "Hanna D., el infierno de la droga". Zuzendaria: Axel Berger. Amayan, 8,30etan

— Goardiako farmazia: A. M. Morales, Iturriotz.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Juan Luis Azkarate  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Amaia Garro

**Maketazioa:** Goio Arana

## Erredakzio

**-kontseilua:** Jose Felix Diaz  
de Tuesta  
Harry Zاراia  
Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez  
de Mendizabal

Mikel Irizar  
Karmele Zuazubiskar  
Patxi Montero  
Juan Martin Elexpuru  
Mikel Arregi  
Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso  
Juanito Leibar  
Estepan Plazaola

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea

**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:**

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Eiffel dorreak, ehun urte

Parisera turismoz lau egunetara-ko joan eta Eiffel dorrrera hurbildu ez diren mundratarren talde bat ezagutzen dut. Agian, pentsamoldea pixkat desbideratua izango dut, baina, aitortu behar dizuet, ez normalizat daukat Erromaraino iritsi eta Coliseoa ez bisitatzea, Londresen Trafalgar edota Piccadilly zer den jakin gurarik ez izatea, Bruselasean Grand Placerengatik interesik ez edukitzea... Ez dakit oker egongo ote naizen; horrela pentsatzen dut eta kitto!

1968ean ailegatu nintzen lehen aldiz Parisera. Udazkena hastear genuen eta frantziar hiriburuak ekaitzaren ondoko pake xarmangarria zerakusen. Bagenuen hiri sakratuan murgil egiteko hainbat eta hainbat zio. Latindar auzoko adokinak berrezarri berriak ziren; Tertreko Plazan azken artista existentzialistek hiltzearen zen bohemoaren lantuzko kantak eskaintzen zituzten; Sorbonako ateetan frantziar gazteak Cohn Bendit berri baten itxaropen antzuan bizi ziren.

Berez adierazten zuenerako, une haietan atzerakoitzat hartua izateko arriskua izan arren, Eiffel dorreak erakarpen handia zeukan guretzat. 1889ko urteaz batera jaiotako monumentu hark, ehun urte lehenago ga-

raile irtendako iraultzaren oroitzapena izan nahi zuen. Eta, hain zuzen ere, 1968an eta batez ere Frantzian gertaturiko jazoerek iraultza zaharra hankaz gora ipini nahi izana zuten. Kontraesan txikia, beharbada, baina hori ez zen arrazoi, dorrea arte-obra bezala ez hartzeko.

Arte-obra esan dut eta ez dut uste inor kontra edukiko dudarik. Nahiz eta bera (oraingo baieztapen honetan hatzamarrak erakus diezazkideke zenbait adiskidek) injinerua izan, Eiffelek metal-arkitektura arte bilakatu zuen, ordurarte beste inork egin ez zuena. Eta horrexek ireki zion arrakastaren atea.

Parisekoa ez da Eiffelek diseinaturiko lehen lana. Baina, zailtarik gabe, bai garaiko intelektualek arbuiatu zioten lehena. "Kantadorreko hezurdura"tzat harturikoak, Sully Prudhomme, Alejandro Dumas, Francois Coppee,... eta horien mailako artista askoren kritika zorrotzak jaso zituen. Lan aurre-rakoiaren aurrean, gizarte estabilizatuan dauden kideengandik eman ohi den erreazio torpedoztatzailea.

Hasieran aipatu dudan arrasatear lagun horiek beren buruak behartu egin beharko lituzkete, zertara eta berriz ere Parisera itzuli eta dorrrera igotzera. Horrela balitz, gaitzerdi.

*Josemari Velez de Mendizabal*



# CHASYR 1879 ASEGURUAK

## GASTEIZ

M. Iradier 15. 233003  
Ordezkaritza

## ARRASATE

E. Gerrikabeitia 79 74 35  
Andoni Conde. 79 60 08

## EIBAR

I. Gerrikabeitia 71 21 39  
Isasi 17, 1., esk.



**ARRATE IRRATIA, S.A.**  
FM - 101,5

Goizeko 9etatik  
Gaueko 11ak arte  
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA  
EUSKAL SINTONIA

**GIROA  
APOTZA**

**ZABALDU BERRIA  
DUGU !!**

Iturriotz, 14 ARRASATE



**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

**ASA**  
ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- \* Etxeko Arrisku Orotarakoa
- \* Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- \* Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- \* Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- \* Pentsio-Fondoak
- \* Jubilazio-Planak
- \* Istripuak
- \* Bizia
- \* Automobilak
- \* Erantzukizun Zibila
- ... etab

**ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!**

Maalako Errabala, 33-Beheazpia  
Tfnoa. 796900

ARRASATE

## Kaixo, lagunak:

Astero zuen aldizkaria irakurtzen duen arrasatear bat naiz. Euskaraz irakurtzen ohitura haundirik ez badut ere —esan beharra dago alfer samarra naizela—, Arrasate Press gustora irakurtzen dut, herriko gauzak kontatzeaz gainera, irakurtzen samurra da eta. Niri honako hau gustatuko litzaidake zuen aldizkarian azaltzea: Elurraren egoera, alegia. Izan ere, orain neguan, astebukaeretan, eskiatzera joan ohi naiz lagunekin eta askotan Candanchura iritsi eta elur gutxi edo txarra aurkitzen dugu. Badakit estazioetara telefonoz deituz gero, elurraren egoeraren berri jakin daitekeela, baina asko eta askotan ahaztu egiten zaigu. Oso zerbitzu praktikoa izango litzateke astero-astero kirol orrietan elurraren egoera azalduko bazenute, gainera eskiatzaile askok pozik hartuko luke.

*P. Gallastegi*

## Agur zuzendari jauna:

Aurreko batean, 3.zenbakian hain zuzen, J.I. Lasaren eskutitz bat azaldu zen Arrasate Pressen, Arrasateko euskarari zuen aldizkariak txoko bat, sarbidea, ematea eskatzen zuena. Handik bi astera, Zelebrekeriak izeneko orrian Bergarako euskaraz idatzitako artikulua bat azaldu zen; eta, hurrengoan, orri berean Arrasateko euskarari ere sarbidea ematen zitzaion. Horraino, oso ondo eta ni neu ere, egia esan, ados nago bertako eus-

karari "txoko" hori eskaintzearekin. Kontua da, aste honetako aldizkarian Sukaldaritza orrian "zizka mizkak" izeneko artikulua arrasateraz dagoela eta nire kezka da martxa honetan osoa arrasateraz kaleratuko ote den. Nire us-tez, ondo definitu behar duzue Arrasateko euskarari edo beste edozein herri-hizkerari eman nahi diozuen tratamendua eta bere erabilpena mugatu.

*Jose F.*

## Kaixo:

Zuen aldizkaria astero edo behintzat heltzen zaidanean irakurtzen dut eta, ondo dagoela esango dut euskara bultzatzeko egiten diren ahalegin guztiak onak dira eta.


Dena den aldizkaria hobetu edo behintzat aberastu daitekeela uste dut eta hor doakizue nire proposamena nahi baduzue kontutan har dezazuen.

Arrasaten, argazki, komiki, eta ilustrazio munduei bere denbora librearen ordu batzu eskaintzen dion jende ugari dago. Zeuk sortua orrian astero herritarren batek idatzitako ipuinen bat agertzen da. Nire proposamena, beti ipuinak jarri beharrean, argazki handi edo komiki edo horrelakoren bat jartzearena da. Honekin beste sormen lan batzuri ere txokotxo bat eskainiko litzaike gure gizarteak izan duen garapenaren adierazgarri.

Besterik gabe.

*Gazte bat*

## Arrasaten kanposantu berri baten beharra dago? Udaletxeak San Kristobalen jartzeko proiektua du, zer deritzozu?



**Jesus Ibañez**  
(irakaslea)

Bai, gaur egun duguna herritik hurbi-  
legi dago, estetika eta higieagatik  
beste leku batetan behar luke egon.  
Beno bertara heltzeko errepide ona  
egonez gero leku ona dela ikusten dut,  
dena den ni ez naiz hilerrien aldekoa,  
krematorioen alde nago.



**Josune Txintxurreta**  
(etxekoandrea)

Bai, beste bat behar dugu, hau herri  
erdian egoteaz gain, txiki geratu da.  
Beno, San Cristobal leku on bezala  
ikusten dut, altu eta aparte bait dago.



**Eugenio Arana**  
(bidaia-ajentziako langilea)

Bai, berri bat behar dugu, daukaguna  
txikia, zaharkitua eta gune desegokian  
dago, herri erdian.  
Egia esan, berdin dit San Cristobalen  
edo Zigarrola aldeko baratzetan jartzea;  
baina dagoen lekutik ken dezatela, hala  
ere krematorio bat hobeto ikusten dut,  
gorpuak lehen bait lehen erretzea onena  
dela uste dut.



**Espe Nafarrate**  
(jubilatua)

Bai, Aldaikoa herri erdian geratu zai-  
gu, herritik kanpo beste bat behar  
dugu.  
Beno, estudioak eta egingo zituzten,  
hori leku aproposa dela ikusten bada,  
ni ados nago.

## EPELDE

Argazki  
denda

Iturriotz 24



PAPER PINTATUAK - PINTURAK

### A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA



Udal honetako **Gaz-  
teriaren Zerbitzuaren**  
anagrama aukeratu  
beharra dagoela eta,  
Lehiaketa hau arautzen duten  
oinarriak esandako zerbitzuan  
daude interesatu guztien esku.

**Arrasateko Udaleko Gazteriaren Batzordea**  
**Arrasaten 1989ko Urtarrilaren 25ean.**

## itesa

SERVICIOS INMOBILIARIOS

- Pisu eta lokal
- Orube eta lursail
- eta balorapenatarako

gure aholkularitza, gestio  
eta salmenta-zerbitzuak es-  
kaintzen dizkizugu.  
Behar izanen informazio  
zabala dugu.

Maalako Errabala, 6. 1Ezk.



## Euskara Poloniara

Gure hizkuntza mugak apurtzen ari da, eta Arrasateko bizilagun bati esker, Poloniaraino heldu da.

Zdislaw Blezienek, azken bi urtetik hona Musakolan bizi den kazetari poloniar jubilatuak, euskal gaiez bi liburu argitaratu ditu Polonian. Lehenak, euskararen jatorriaz hainbat apunte eta euskara-poloniera, poloniera-euskara hiztegia ditu. Bestean, gai euskaldunez sei ipuin historiko biltzen dira ("Aintzinako euskaldunen ohiturak", "Izaro Ugartean aurkitutako eskuskribua", etab.). Paskual Manuel Urzainki poeta iruñarraren hiru olerki polonierara itzuli eta argitaratuak ere badauzka.


Zdislaw Wrodawekoa dugu eta, jubilatu baino lehen, "Irrati Poloniarra"ren zuzendari artistikoa zen. Orain hiru urte utzi zuen Polonia, musika-irakasleak diren seme-alabekir, hona etortzeko.

Euskal kulturarekiko duen interesak bultzatu du Zdislaw liburu hauek egitera. Bere eritziz, gure hizkuntzaren jatorria enigma bat da, eta bada-

go Polonia eta Euskal Herriaren artean nolabaiteko paralelismoa, bi herrialde hauetako lurraldeak zapalduak izatea, alegia. Kultur maila handiko gizona dugu hau, alemaniera, ingelesa, frantsesa, italiara, gaztelera, latina, grekoa eta poloniera hizkuntzak bait dakizki.

Bere herrialdera itzultzean, herri honen ezaguera zabaltzeko asmoz, euskal-poloniar instituto bat sortzea gustatuko litzaioke.

Azkenik, badauka beste ilusio bat:



Zdislaw Blezien

berak eginitako "Atlantida" izeneko irratirako antzerki obra ("irudimen-antzerkia" deitzen zaio Polonian) hemen plazaratzea. Obra honen gaia historikoa dugu, Grezia klasikoan hasi, eta garai pos-nuklearrean bukatzen da. Poloniako Irrati-Jaialdiaren Saria irabazi zuen.

Caly dziekowac (esker mila), Zdislaw.

## Eloi Irazabal, beste epaiketa baten zain

Hilaren 16an izandako epaiketan berari leporatutako karguez absolbatu dute Eloi Irazabal preso politikoa. Epaiketa honetan, eta kargu hauek direla eta, 29 urtetako zigorra eskatu zuten.

Eloik epaiketa honetan absolbatua gelditu arren, datorren ekainean beste epaiketa bat egiteko du, oraingoz han leporatuko dioten karguak publikoki ezagutzera eman ez direlarik.

Bitartean, Eloi elgetarrak Alcalá-Meco-ko kartzelan jarraitu beharko du.

16ko epaiketan Ramon Bidaburu "Txarra" eta Felix Bengoa ofatiarra testigo gisa izan ziren.

## Atzera botata "Canal 3"en eskaera

Arrasateko Udalak, bere Gobernu-Batzordearen bidez, "Canal 3, S. A." enpresak kable bidezko telebataketa ezartzeko ondasun publikoak erabiltzeko eskatutako baimena oraingoz atzera bota du, beronen proiektuei buruzko informazio gehiago ematen ez dion bitartean.

Baimena Albacetetik bidalitako gutun baten bidez eskatu da, baina hemen inork ez daki ezer enpresa honetaz.

"Canal 3"aren helburua izan daiteke beronen arloko beste enpresei aurrea hartzea.



**VIGURI, S. A.**

**T.B - BIDEO - Hi-Fi**

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.


**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN  
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

**VIGURI**, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



**ZENBAKI**

Gaiak: Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

**BASABE INDUSTRIALDEA  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)**

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

## Larunbatean Gaztetxeo kontzertua suspenditu

Larunbatean Arrasateko Gazteen Asanbladak antolaturiko kontzertua Udalak suspenditu egin zuen. Horretarako, kontzertua hasita zegoela, jende talde batek "Gurea"ko elektrizitate-kajako kableak moztu zituen.


Udalak esaten du AGA eta bien arteko akordio bat dagoela kontzertuak "Gurea"n ez egiteko. AGA-koek, berriz, horrelako akordiorik ez dagoela diote.

AGAKo ordezkari baten eritziz, 1988ko Maiatzean auzotarrekin izandako bilera baten arabera, "Gurea"n, zarata handia ateratzen zela eta, bertan kontzertu gehiago ez egiteko posibilitatea ikusi zen, kontzertuekin jarraitzeko, toki municipalak erabiltzeko posibilitatea gelditzen zelarik. Gaia tratatzeko, hurrengo Gazteria Saileko bilerara joateko nahia azaldu arren, erantzunik ez zuten jaso. Hori dela eta, egunkariren baten agertu den bezala, ez dago inolako akordiorik bien artean.

Bestalde, nahiz eta Udalak Kiroldegiaren alkilerria subentzionatu, beraiei 60.000 bat pta. ordaintzea dagokiela gaineratzen dute.

AGAREN ustez, Udalak ez die erretzasunik ematen, beraien ekitaldiak aurrera eramane ahal izateko 1988 urtean, esaterako, ez dute subentziorik jaso (aurkeztatutako bat atzera bota zuten gaizki idatzita zegoelako), bakar-bakarrik "Gurea"ko ura eta elektrizitatea ordaintzen die.

AGAKoek, bestalde, Gaztetxea "Gurea" ez den beste lokal baten



Udala eta A. G. A. ren arteko harremanak urrunduz doaz.

kokatzearen alde daude. Beti ere, lokal berri horrek gutxiengo baldintza batzuk bete beharko dituelarik.

Arazoak, arazo, altematiba berrietara zabalik daudela diote.

Arazo honetan zerikusia duten beste aldekoen postura ezagutzeko asmoz, Udalako Gazteria Saileko ordezkariarekin egon gara.

Honen ustez, 87an AGA eta Udalaren artean akordio batetara heldu zen, zeinaren arabera "Gurea" ez zela toki egokia ikusiz, kontzertuak Monterroi edo Kiroldegian egiteko akordioa hartu zen. Orduetik hona, orde, behin bakarrik eskatu diote baimena toki hauek erabiltzeko. AGARI herriko edozein talderi eskatzen zaizkion baldintza berdina eskatzen zaizkiola gaineratzen dute.

Arazoa, Udalaren ustez, AGAKoak beti inprobisatzen ibiltzean datza.

Bestalde, AGAREN barruan kontradizio asko dago: Udalaren eskakizunak kontutan hartu gabe jokatzeko dute, alde batetik, eta gero dirua es-

katzera datozkie, bestetik.

Subentzioei dagokienez, ez dute diru gehiago jaso burugogorrek izateagatik. Bien arteko harremanak urruntzen doaz azkenotan.

Larunbatean izandako aktuzioaren arrazoiak, konkretuki, honako hauek izan ziren:

—ez dute onartzen Ertzantzaren despliega,

—koherentziagatik, "Gurea" inguruko auzotarren kejak errespetatu beharra zegoela.

Pausu txarra, bai Gaztetxearentzat, bai Udalarentzat, eta baita gazte guztientzat orokorrean ere enfrentamenduak sortu dituelako, baina egin beharrekoa izan dela diote.

Etorkizunari begira, lokal berri bat bilatzeko beste talde politikoekin batera proposamenak aztertzen ari dira, epe laburrean akordio batetara helduko delakoan daude. Eta AGAREkin nahi dute, behin betirako, bie dagozkien gaiak finkatu: "burokrazia", kontzertuak...

**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai, 9 Tfnoa:798997

ARRASATE

## Eskolak material konpositen zentrua sortuko

Asteartean Ignazio Lakunza, Eskola Politeknikoko zuzendariak eta Rafael de Ramón, "Cristalería Española" enpresako zuzendariak, "Eskola"n material Konpositen Zentru bat sortzeko lankidetasun-akordioa sinatu dute.

Proiektuak "Cristalería Español-

la" eta Gipuzkoako Foru Aldundia-  
ren laguntza finantzieroa izango du.  
Hasierako teknologia ere  
"Cristalería"k ipiniko du. Lehen  
hiru urtetarako 32 miloietakoa inber-  
tsioa egingo da.

"Eskola" konposite materialaren  
estudioak Ingenieritza ikasketa-pro-

grametan sartuko ditu, eta material  
honekin eginiko piezen aplikazioak  
aztertzeko, Aplikazio Zentru bat  
sortuko du.

Konpositea beira-fibraz berrin-  
dartutako erretxina-oinarriz osatuta  
dago, eta material honekin metala  
ordezka dezaketen piezak lortzen  
dira.

Mota honetako akordioa ez da  
lehen inoiz egin Estatu espainol-  
rean, eta Rafael de Ramonen eritziz,  
"etorkizunera begira, oso ondorio  
onak ekarriko ditu".

Zentru honetan, konpositez egi-  
niko prototipo berriak sortzeko ex-  
perimentatuko da eta, bide batez,  
promozio enpresarial berriak bul-  
tatzeko balioko du.

Hau, "Saiolan"ek bultzatutako  
goi-mailako teknologiako lauga-  
rren promozioa dugu.



Ignazio Lakunza (Eskola Politeknikokoa) eta Rafael de Ramón (Cristalería Española) akordioa sinatzen

## Udalak "berdintasun-arbitraia"ren bidez partikular bat indemnizatu

3.300.000 pta.tako indemnizazioa ordaindu beharko dio Udalak, Udaletxearen obrak direla eta, kalteak jasotako partikular bati. Honek bere etxeko lehio bat edo bi itxi behar izan ditu.

Baina berri honen muina, tratu honetara heltzeko prozeduran datza, hain zuzen: ohizko bide judiziala aukeratu beharrean, alde biek "berdintasun arbitraia" delako baten bidez konpondu zuten arazoa. Prozedura hau laburragoa eta merkeagoa bait da.

Indemnizazioaren kopurua jartzeko "gizaki on" bati, tekniko bati eta paratzaile bati "berdintasun arbitraia" bidezko laudo bat eskatu zieten.

Erabakitako epaia ezin izango da, ez aldatu, ez berrikusterazi.

## Zaldibar estali ala ez, aurrekontuekin batera erabakiko

Zaldibar Frontoia estali bai ala ez, laster aurtengo aurrekontuak onartuko diren Plenoan erabakiko da, data oraindik erabakitzeke dagoelarik. Hurrengo Plenoan, beraz, ez da gai berezia bezala tratatuko. Sesio honetan, bestalde, El Ferialeko proiektua ez omen da aurkeztuko.

Zaldibarren aurkako firmak bildu dituen taldeak gai honi lotutako erreflexio bat kaleratu du. Planteatzen dute "zein izango litzatekeen Arrasateko bizilagunen erantzuna, jende-talde bat gai honetaz arduratuko ez balitz. Inor ez litzateke ezertaz enteratuko". Honek erreflesio batetara bultzatzen dute: "oso gutxi informatuta gaude; potere faktiko eta eritzi publikoaren arteko harremanak ezarri beharra dago"

### MEDIKU KONTSULTATEGIA

ARMANDO BARTOLUZZI LLAROS

AURORA ONA OCHOA

JUAN SALA AYMA

DOKTOREAK

Olarte kalea, 43

Tfnoa: 79 81 00

## URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAY, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



izen propioak

Japoniarrak bisitan

Tokyo-ko Kita Tama kontsumo kooperatibaren 20 bazkide izan ditugu bi egunez Arrasate inguruko kooperatibak bisitatzen. "Mondragoekoa, esperientzia bakarra da munduan eta gu ikastera etorri gara" esan zigun Mitsumasa Nakazawa jaunak, taldearen burua bera. Japoniarrek beren ospea ondo irabazia dutela konturatu ginen, guk hiru argazki egin genien bitartean beraiek guri hamarren bat atera bait ziguten.



Dagoeneko zuetariko batek baino gehiagok **Arrasate Press** egiten dugunok nortzuk garen jakiteko gogoia izango du. Joan den ostira-lean behingoz paper artean bildu beharrean mahai baten

inguruan bildu ginen eta ohitura ez galtzeko argazki makina ere gure artean zegoen. Hona hemen ba gure argazkia eta ezetz asmatu Eukeni Olabarrietak eta Arantxa Lizasok osasun orrian alkoholari buruz eman zituzten aholkuak nork ez zituen jarraitu.



**Begoña Iturbe** arrasatearra **Michael Church** ingelesarekin ezkondu zen joan den urteko Abenduaren 30ean Arantzazun. Bikote ezkon berria Ingalaterran bizitzeko asmotan da. Hemendik aurrera beste arrasatear bat izango dugu atzerrian.

Laso



**Juan Luis Zabala**, "Maiabi", 26 urteko gazte arrasatearra aurtengo Haratustetako kartel-lehiaketa irabazi du. 10 kartel aurkeztu ziren, eta "Maiabi", irabazlea suertu eta 50.000 pta. tako saria irabazi du. On egin!

**Fernando Jarrilla**, 25 urte ingeniari tekniko irundarra. Beste bi ingeniari eta zientzia zehatzetan lizentziatu batekin "UCEM-Sistemak S.A." enpresa sortu berri dute Aretxabaletako industrialdean. Saiolantetik irten da kimu berri hau, Unión Cerrajerak ere parte hartzen duenari. Fernando izango da gerentea eta egingo duten produktua: eraikuntza edo departamentuetako sarbide mota guztietarako segurtasun sistema elektronikoak.

**Pedro Mendieta**, 50 urte, Aretxabaletako alkatea eta Eusko Jaur-laritzaren Hezkuntza Sailburuorde izana. "Eguna" aldizkariak aipatu duenez, Eusko Alkartasunak Pedro Mendieta zuzpertz nahi du eta Gipuzkoako diputatu nagusitzat hurrengo hauteskundeetarako prestatu. Mendieta Fagorren ari da lanean, Ingeniaritza eta Ekipamendu-Ondasun saileko zuzendari.

**Juanjo Madinabeitia**, 26 urtetako gazte arrasatearra izango da hemendik aurrera Udaletxeko enplegu-tekniko berria. Juanjok Gasteizen Historia ikasketak eginak ditu.

**IKER**

Sukalde Erakusketa  
Udala Plaza, z/g  
Tfnoa: 79 00 42

**ARRASATE**

Bainugela Erakusketa  
Zarugalde Kalea, 52  
Tfnoa: 79 99 42



**omu, s.l.**  
mosaikoak

**ZERAMIKA-ERAKUSKETA**  
Otalora, 1 - behea  
Tfnoa: 79 07 20

## Labeko Koba historiaurrearen ezagupenerako urrats berria

Historiaurreaz hitz egitera-koan Leze-Txiki koba zetorki-  
gun gogora Arrasatearroi, bera  
bait da orain arte gure herrian  
izan dugun garai honetako  
koba bakarra. Iaz Labeko  
Kobaren berri izan genuen eta  
bere garrantziaz asko entzun  
ere bai. Dagoeneko Aranzadi  
elkartekoek bertan egin behar  
zituzten lanak bukatu dituzte  
eta bere garrantziaz eta egin  
diren lanez lehen ondorioak ka-  
leratu.

### Kobaren istorioa

Lebeko Koba 1972an herriko  
espeleologi taldeak aurkitu zuen  
eta topatu zituzten abere hezur eta  
tresnak jaso. Lehen aztarna haiek  
kontutan izanik inork ez zuen  
pentsatu kobaren garrantzia hain  
handia izan zitekeenik.

1987. urtean Aranzadikoek  
bariantearen lanak kobatik gertu  
zeudela jakitean lehen ikerketa  
batzu antolatzen dituzte kobaren  
esanguraz jabetzeko asmoz.

Lan egin ahal izateko kobaren  
sarrera aurkitu behar izan zen,  
sastrakak erabat ezaltzen bait  
zuen. Lehen balorapena egitean  
eta aztarnategia Goi Paleolitos  
garaiaren ezagupenerako garran-  
tzia handikoa izan zitekeela kon-  
turatzean kobaren suntsipena bir-  
planteatzen da.

Azterketak aurrerantz joan  
ahala, aztarnategiaren aberasta-  
sun eta garrantziaren inguruan  
egin ziren aurreikusmen guztiak  
gaindituta geratu ziren, hasieran  
ikertzea espero zen baino eremu  
dexente zabalagoa aztertu behar



*Lanetan jende ugari hartu zuen parte .*

izan delarik, 40 metrotako lur sail  
bat.

### Aztarnategiaren garrantzia

Labeko koban aurkitu diren  
aztarnak Goi Paleolitos garaiari  
dagozkio. Garai hau Kristo aurre-  
tik 200.000 eta 75.000 urte bitar-  
tean kokatzen da. Historiaurreko  
aro hau nahiko ezezaguna da.  
Euskal Herrian dauden aztarnate-  
gi garrantzitsu bakarrak Iparral-  
dekoak direlarik, beraz, Labeko  
Koba Iparraldeko eta Kantauri  
aldeko aztarnategien arteko lotu-  
ra bihur daiteke.



Bertako aztarnak hiru epetan  
bana daitezke. Lehen epean ez da  
gizonaren presentziarik soma-  
tzen, gordailu naturala izanik ani-  
maliak baino ez dira aurkitzen,  
errinozeronte ugari, oreinak eta  
zaldiak kopuru handian, bison-  
teak eta elefante baten betagin  
bat. Beste bi epeetan gizona ko-  
ban bertan bizi da. Gizona koban  
bizi den lehen epea Goi Paleolito-  
seko arorik zaharrena da Chatel-  
perron aldia deritzana hain zuzen  
eta aztarnak urriak dira. Beste  
epea Goi Paleolitoseko azken

aroa da Aurinac Aldia alegia.  
Garai honetako aztarnak uga-  
riak dira milaka pieza aurkitu di-  
relarik. Ugarienak marruskak,  
Doufour erako milaka printza,  
hezurrez eginiko punzoi gutxi  
batzu etab luze bat. Bi epeak  
ondo bereiztuak aurki daitezke  
tresnerian garapena somatzeaz  
gain estatigrafian ere garbia bait  
da beraien arteko bereizkuntza.  
Aztarnategiaren kontserbazio  
maila desberdina da; koba ba-  
rruan aurkitutakoak oso egoera  
onean daude, aldiz, kobaren ba-  
bespetik kanpo zeudenak euria-  
ren eraginez nahiko hondatu  
dira.

### Bariantearen eragina

Labeko Koba desagertzera  
doala eta galdera ugari datorki-  
gu burura. Horrek ez al du gale-  
ra handia suposatzen? Lanak  
ondo egiteko astirik egon al da?

Aranzadi elkartekoek gauza  
guztiak batera egin behar izan  
direla adierazi digute, honek  
ohizkoak ez diren metodu ba-  
tzuk erabiltzera behartu dituzte-  
larik. Edozein aztarnategi iker-



Aziarna ugari gorde izan ditu koba honek bere barruan

zterakoan, lekuko edo ikertu gabeko lur-sail bat utzi behar da, gerora ikertzailereren batek aztertu ahal izateko interesik izanez gero. Kasu honetan lekukorik ezin izango da utzi bariantearen eraginez, Labeko Koba desagertu egingo bait da.

Dena dela, gauza guztiak batera egin behar izateak abantailak ere ekarri dizkiela aitortzen dute Aranzadikoek.

Desagerpenak galerarik suposa lezakeen galdetu diegunean Alvaro Arrizabalagak honako hau erantzun digu: "Bi gauza bereiztu behar dira. Orain apurtu-

ko dena kobazuloa da, aztarnategia bera ez da apurtuko bertatik atera egin dugu eta. Hortik atera behar genuen dena atera dugu eta hemendik hamar edo hogeitertara ikertzailereren batek koba aztertzea interesgarri gerta zitekeen arren, galera ez da oso handia izango. Horrez gain, desagertze-  
ra doala eta normalean erabiliko liratekeen baino baliabide ugariagoak erabiltzen ahalegindu gara. Adibidez, horrelako lanetan bideoa ez da inoiz erabili izan eta guk erabili egin dugu".

Labeko Koban egin diren lanak aurregabekoak dira bukatze-

ko izan duten denbora laburra kontutan hartzen badugu.

Ikerketak bukatzeke daude, jaso diren aztarnak garbitu, sailkatu etab egin behar bait dira, eta behin betiko ondorioak jakiteko urteak itxaron beharko ditugu.

Martxorako Labeko Kobaren inguruko erakusketa bat antolatu nahi da Monterron Kultur etxean, bertan aurkitutako aztarnak denok ikusi ahal izateko. Erakusketan aztarnez gain bideo bat ikusteko aukera ere izango dugu, hamabost urtetan, Gipuzkoan benetako materiale arkeologikoarekin egiten den lehena izango delarik.



**BELUN  
TABERNA**

**Lagunarte bikaina**

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

**ITURRIOTZ TABERNA**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa: 79 16 04**



## Famauen ahotik



Joxe Etxagibel bere homenaje egunien sarixek jasoten

Joxe Etxagibel: "Gerra aurrien esportetako beste jugadore jauan hemen"

### FITXA TEKNIKUE

JAIXO: 1917-V-22xen, Garagartzan

ALTURIE: 1'77

PIXUE: 75 kilo

PUESTUE: Portero

EKIPUEK: Mondragon C. F. 1936-40  
U. D. A. 1946-50

"Futbol kontuen, bi epoka egon dittuk nire sasoién Mundrauen: gerra aurrie eta gerra ostie. Gerra aurrien esportetako beste jugadore jauan hemen. Orduen urtero eitten zuan kanpeonato lokala eta han parte hartzen juen Santa Agedak, Musakolak, Eusko Gaztedi-k, Karlistik... "Obrero parauek" be bai. Orduen paro haundixe jauan eta ekipo ona jaukien. Eta gero Mundrauko "reserbak". Nik han jokaketan naixuan. Orduen sasoién entrenadore inglesa be egon zuen Mundrauen, "Mister Harris". Bi urtien edo egon zuan Joxe Añibarrak ekarritte.

Gerra ostie eskasa izen zuan, kanpotik ekarri bier jugadoriek.

Ni Mundrauko "reserbetan" nebillela Benito Etxeberria, zurduen anaia, zuan titularra lehenengo ekipuan. Ha ona zuan eta Realakin tratuen edo jabilan eta behin eruen juen probak eitten. Eibarren partidue gaukan eta Benituoi etorriko zala bañe baezpada be jueteko esan josten, berandu allegetan bazan be.

Nik, etorriko zala-ta banak kafe hartu ta puro haundi bateaz gradan eta hor jatozak Benito etzala etorri eta neuk jokatu bier nauela. Bota puruoi eta han juen nitzuan añiketari kaxetara. Orduentxe debutau naixuan Mundrau nausiaz. 2 eta 1 galdu gaixuan.

Gerra ostien 40xen etorri eta, orduen gosie jauan eta gabon zaharretan amak okela apur bat edo zuzendu biek gauela gabonok zelebretako. Zirilo Kortabariari bizikletie eskatu eta juen nok Aramaixora, Barrautzen kamizeixara. Okelioi hartu eta banatok ilunetan hor Iturripe parien eta, gizon bat. Jo jotzat tinbrie bañe apartau ez eta danba! jota bixok luze. Harek saihets bi eta eskuturre apurtute ta nik okotsa zizko eindde. Sei egunien egon nitzuan konorteik barik. Ezautu nauen lehenengo personie Ubago zaharra izen zuan Errage egunien kurie eitten etorritte. Orduentxe billurtu eta futbolai itxi ein nutzan.

Gero 46xen Atxabaletak ekipue formau juan eta jueteko eta jueteko. Juen nitzuan eta lau urte ein nittuan han kapitán.

Orduen batetik bestera kamioien jueten gitzuan. Bai, peskien kamioi horreik atzetik be zerrauk izeten dienak. Harek halabe alanbre-sariek baño zulo gehixau ta tuboeskapie be apurtute; moxkorak letxe urteten gaixuan, mariaute.

50ien homenajie ein justien eta hola akabau zittuan nire fubol kontuok. Pozik, fubola zata ta etzala andrie be bertan topau gaixuan ta.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

## Zelebretak

Aspaldi pasautakua da. Gau euritsu baten, badator motorrian "Buru" deitzen zotsen Elgetarra Mondragoe aldetik Bergararutz; itxuria txikito mordua jota zetorren gizona eta Ola baño lehenagoko Salgumendiko zubixan, blausta, ibaira zuzenian. Oñezko bat tokau zan parian eta laguntzera joan jakonian han topau zeban "Buru" sekulako gaztaikuakin, konortia erdi galduta.

— Ze moduz hago?

— Ni ondo, baina bestia?

Lenengo pasau zan kotxia gera-tu eta zentrora eruan zeben, "nun dago bestia, bestia, bestia..." esaka eta esaka.


Guardazobillei, bonberuei eta inguruko baserritarrei deittu, linternak eta farolak hartu eta ibaixa errejstatzen hasi zien "Buru"ren "beste" lagunan bila. Zentruan be "Bestia, bestia, bestia" jarraitzen ei zeban. Bi egunian jardun zeben sasixak, osiñak, presak eta iñundienak harrotzen. Eskerrak, konortia etorri jakonian "bestia" esan biharrian, "Vespa" (Vespa) esan nahi zebala konturatu zirenai. Bestela oinddio be San Prudentzio-tik Debaraiñoko erreka baztarrak aztertzen jardungo giñuan.

■ ■ ■ ■ ■

— Hi be heure denporan makiña bat parranda einddakua haiz!

— Jeseus, jeseus, zenbat gripe pasau ete juau zutik ajia zalakuan.

Juan Martin Elexpuru



Material elektriko eta elektronikoko biltegia  
Injinerutza eta aholkularitza

**Elektra, s.a.**

Nafarroa etorbidea, 29 Tfnoak: 79 73 77  
79 66 55

Fax: 792368  
ARRASATE



**JESUS ELKORO**

BIDEO - KLUBA

•••• Tfnoa: 791886  
ARRASATE



# Zer gertatuko da Zaldibarrek in ?

## HITZALDIA

Eguna: **Otsailak 1, Asteazkena**

Lekua: **Monterron Kultur Etxea**

Ordua: **7etan**

## PARTAIDEAK

**Pedro Lizarralde eta**

**Juan Osinaga**

(Arrasateko Pilota Eskolako partaideak)

**Jesus Mari Usatorre**

(Arrasateko Udaleko Hirigintza Batzordeko Lehendakaria)

eta





**Zaldibar Estaltzearen Aurkako Komisioko partaide bat**

**Moderatzailea:**

**Pio Azkarate (A. E. D.ko partaidea)**

H  
E  
R  
R  
I  
G  
I  
N  
T  
Z  
A  
N

CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA



- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bul-tzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959


1988

Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezkia

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,  
Lan Kide Aurrezkia  
"Euskadiko Kutxa" da**



Euskadiko Kutxa

○ "Ogibidea aukeratzekoan, emakumezkoen-ogibidea kontzeptua planteatu egiten da. Nik uste dut emakumeok edozein lan egiteko gai garela, eta gure presentzia lan-arlo guztietan garantizatu egin behar da berdintasuna lortzeko".

(*Esther Larrañaga, abokatu arrasatearra, Gipuzkoako Diputazioko Kultura Saileko Zuzendariak DEIAN*)

○ "Arrasate, Bergara, Beasain... euskal kooperatibismoaren gune bilakatu da, eta garrantzi industrial sakona izan arren, estatuaren aurkako kokagune historiko moduan mantendu da ideolojikoki. Industrial gune hau komunikazioaren azpiegitura aldetik laguntzarik gabe geratu da orain arte eta gaur egun ere, azpiegituraren hornikuntzan ikuspegi ekonomikoak baino politikoak gehiago begiratzen direla dirudi batzutan".

(*B. Artola kazetariak "Argia" astekarian*)

○ "Lortu dudana edo egin dudana metarik jarri gabe izan da, gaztetan eskola arteko txapelketetan nahiko ondo ibili ginen metarik jarri gabe. Gero nagusien arteko txapelketetan "papera betetzeko" aurkezten hasi ginen eta finalera ailegatu nintzen, inolako metarik pentsatu gabe. Beraz, ez daukat meta zehatzik".

(*Jon Sarasua bertsolari aretxabaletarrak "Aizu" aldizkarian*)

○ "Europar zabalerako trenbidea Irunetik Gasteizera -Arrasatetik igaroz- egiteko Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen diru-aurratzea onartzeko Administrazioa prest dagoela, ofizialki eta argi eta garbi, ez esate horretan, diskriminazio-politika ikusten du Jose Antonio Ardanazak".

(*J.L. Torres Murillo kazetariak "El Correo Español" egunkarian*)

**Zein asmorekin sortu nahi duzue Leintz bailarako orfeoia?**



Eskoriatzako koro-koek orain urte bi elkarrekin kontzertu bat emateko gonbitea luzatu ziguten baina, 40 ahotsek osatutako koroa orkesta batekin batera oso pobre gelditzen da. Aurten Gorosarriren mendeurrena dela eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako koroek eta guk, Urrian elkarrekin kontzertu bat ematea pentsatu dugu. Hau, Leintz bailaran orfeoia sortzeko hasiera ona izan daiteke, lan handia suposatzen duen arren koro bakoitzak bere nortasuna bait dauka eta bat egitea ez da samurra izaten. Lehen kontzertu honetarako Gorosarriren lanak aukeratu ditugu. Gerora Arrasaten koro bat sortzeko ideia ere badaukagu, herrian tradizio luzea egon badago eta, azken urteetan herrian koro onik ez dagoen arren. Koro hauek beren nortasuna gordeko lukete. Onak ez du esan nahi ezin elkar daitezkeen kontzertuak emateko. Hasiera Urriko kontzertua izango da eta gerora zer egin genezakeen jakiteko bide proposa.

*Juanito Arzamendi.  
Arrasate Musikaleko Zuzendaria.*



KULTUR FISIKO ZENTROA

- Squash-a
- Karatea
- Gimnasia
- Muskulazioa
- Sauna
- Masaiaik
- Solariuma

6,45 etatik 10etara  
Irekita


Kontzeziño, Tfnoa: 799731

*Jose Aranzabal*

**ELEKTROGAILUAK**  
Iturriotz 15  
Tfnoa: 791516



**AKOBERE**ren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIKETA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

# AKADEMIA BASTIDA

INFORMATIKA  
KONTABILITATEA  
MEKANOGRAFIA  
TAKIGRAFIA



Helbide berria: Ferrerías 44. Behea. Tfnoa.793216

## PROMOCIONES MARKULETE, S.A. NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

**Mendi - Etxebarrin**

200 m<sup>2</sup> tatik aurrera  
sarbide zabalekin

- \* Plantartekoa eta zubi-garabia, aukeran.
- \* Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia.
- \* Zerbitzuak: saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta:

Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



## J. C. Irizar: "musika bizitza da"

Juan Carlos Irizar, musikagile oñatiarra gure artean izan dugu hilabete honetan. Musika munduan gauza ugari egin dituen arren bere izena askorentzat ezzagun gertatzen da. Ikasketak Oñatin hasi eta Donostia, Madrid, Frantzia eta Italian ere aritu izan da konposizio, piano eta orkestra zuzendari karrerak amaitu arte. Emanaldia hasi aurretik hurbildu gintzaizkion berarekin hitzegiteko asmoarekin.

— Arrasate Press: Kanpoan aritu izan zara ikasten, kanpora joan beharra dago musika-ikas-keta on batzuk hartzeko?

— Juan Carlos: Beno, hemen irakasle onak egonez gero ez dut uste ikastera kanpora joan beharra dagoenik. Dena den, hemendik irtezea esperientzia oso ona da. Hemendik kanpo dena zailagoa da, ikasteko era bera ere zailagoa da eta esperientzia hartzeko oso ondo dago.

— Musika idazteko, zure eritiziz ikasketak edukitzea beharrezkoa da ala "belarri ona" edukitzea nahiko da?

— Hori lehen gertatzen zen, jendea kontserbategietara joan eta ikaragarri aspertzen zen, ez zuten nahi zutena ikasten, solfeoarekin hasi eta nazkatu egiten zen pedagogia zaharra eta gogorra erabiltzen bait zen. Egon daitezke musika asko entzun eta nahiko onak diren musikoak ikasketak izan edo ez izan. Hala ere, kontserbategira joan izan balira hobeto egingo zuket. Kontserbategiak gauzak hobeto eta errezago egiteko laguntza dira.

— Juan Carlos-ek Jon Enbeita bertsolariarekin liburu bat idatzi du eta honez gain ikastola ezberdinetan klaseak eman ditu. Irakaskuntza eta bertsolaritza munduekin zein harreman duzu?

— Haurren eta bertsolarien munduak oso atsegin ditut. Umeentzako musika ugari sortu dut.

Orain eskoletan musika sartzeko proiektu bat aurrera eraman nahi dugu.

Bestalde, bertsolariekiko harremana oso gogoko dut, asko bait dakite. Badakite musika berria nola sortu behar den. Nik ez ditut bertsoak egiten baina, bertsoetarako musika bai.

— Zure produkzio musikala ugaria izan arren jendeak ez zaitu ezagutzen, zein da horren zergatia?

— Bai hori egia da, baina bi gauza bereiztu behar ditugu abeslariak eta musika egileak. Nik beste batzurentzat lan egiten dut, orkeztazioak prestatu, disko eta filmeetarako musikak etab. Lan hauek aurkeztean musika egileen izena txoko batetan erdi izkutaturik agertzen da. Zuzeneko emanaldietan agertzen ez garenez jendeak ez gaitu ezagutzen. Halere, musika munduan dihardutenek bai klasikoek bai modernoek ezagutzen naute. Ez ezagutze hori, izena marketing kanpainetan ez esplotatzen dator.

— Nolakoa da zuk egiten duzun musika?

— Gustoren musika erromantikoa egiten dut, dena dela, era guztietako musika egiten dut rock-a, reggae-a, kupleak etab. Imnoak eta martxak ere egin izan ditut, askok hori atsegin dudala uste duelarik, baina enkargoak dira. Egiturak dakizkidanez era askotako musika egin dezaket baina jakina, batzuk beste batzuk baino gustorago egingo ditut.

— Musikagile gisa zer duzu nahiago: piano-emanaldiak, orkeztazioak edo antzerki lanetarako musika prestatzea?

— Dena gogoko dudala esan daiteke. Piano-emanaldiak gogoko ditut eta orkestra handiago batekin aritzea ere bai. Arazoa dirua da. Horrelako lan bat prestatzeak diru asko eskatzen du. Dena den, nik piano jotzea baino nahiago dut musika



Juan Carlos Irizar

egitea. Oso gustora eta pozik egon naiteke aste oso bat etxetik mugitu gabe musika idazten.

— Orduan, abeslariak hain gogoko duten publikoarekiko harreman zuzen hori ez duzu atsegin?

— Ba, egia esan, ez; tristeza, ez? Jendearekiko harreman zuzena atsegin banu emanaldi gehiago antolatuko nuke, baina ez dut joerarik. Zuzendari karrera ere bukatua daukat baina orkestarik ez dut zuzentzen, konturatu bait naiz benetan atsegin dudana musika idaztea dela, mugimenduak, agurrak eta horrelakoak ez ditut atsegin.

— Musika erromantikoa da, sortzea eta entzutea atsegin duzun musika?

— Beno, klasikoetan Beethoven eta Mozart ditut gustokoen, Schubert, Lizt eta Chopin erromantikoak ere atsegin ditut.

Gaur egungo musikoetan "kontemporaneo" bezala ezagutzen ditugunak Strauss eta hauek. Musika aleatorioak ez zaizkit batere gustatzen, musika esperimental gisa ezagutzen duguna. Duela ehun urte hasi ziren musika-mota hau idazten eta oraindik ere esperimental hitzaz definitzen dugu, ez bait da mamitu.

Rock eta horrelako musikak ondo eginak egonez gero atsegin ditut. Ondo egindako musika edo interesgarri den zerbait esaten duen musika guztia gustatzen zait.

— Beno, eta amaitzeko zuretzat musika zer da?

— Musika bizitza da. Ni hiltzea hobe da, burutik musika kentzea baino. Bizitza musikarik gabe ez dut ulertzen, ez da ezer.



## “Arrasate Kiro- lak” Rugby tal- deak igoera fa- sea jokatu

“Zuzenbidea”ren aurka 26 eta 0 emaitza-rekin azken garaipena lortu ondoren, Arrasa-

Ez dute galdu partidu bat ere etako rugbyleriek, amaitua dute garaipena besterik ezagutu ez duten lehen fasea. Gipuzkoako herrialde mailan aritzen diren 7 taldeen artean, lehenak gelditu direlarik.

Orain atsenaldi txiki bat izango dute martxoan “Igotzeko Fasea”, haten den arte. Fase honetan Gipuzkoako lehenengo bi taldeek eta Bizkaiko beste lauk hartuko dute parte. Gipuzkoatik, “Arrasate kirolak” eta Hernani izango dira, hain zuzen. Honetariko lehenengo biak Euskal Herriko txapelketa jokatzera pasako dira

Hona hemen aken partidu honetako jokalarien zerrenda: Manolo Alonso, Benancio Urrestarazu, Dani Mendizabal, Mikel Arregi, J. Aranburu, Kako, Arrieta, Gaizka Gisasola, J.R. Ertzilla, Iñaki Mendizabal, Egiluz, Martin Nuñez eta J. Marañón. Entrenatzailea: Peio Iriart.

### DENPORAPASEN SOLUZIOAK:

Euskal Herria ezagutuz: Iruñea, Tuter, Lizarra, Zangotza, Herriberri.

Bertako hitz ahaztuak: A I S T


## Jose Antonio Gay Euskadiko txapel- duna 400 m.tako lasterketan

Jose Antonio Gay, igandean Donostiako “Palacio de los Deportes”en lortu-tako 49’71”tako markarekin, Euskadiko txapelduna bilakatu zaigu 400 metrotako lasterketa motan.

Marka honekin ziurtatu du partizipazioa; Otsailaren 4ean eta 5ean Sevillan izango den Txapelketa Absolutorako eta baita, Martxoaren 4ean eta 5ean Valentzian izango den Espainia mailako Txapelketa Juniorerako ere.

Jose Antonio “europar plantako atleta” deitu dute kazetariak.

Garaipenekin jarraitzeko, Jesus Eskibel eskoriatzarra, 50 urte baino gehiagokoentzako Gipuzkoako Kross Txapelketa garaile suertatu zen Hernanin



Jose Antonio Gay



## 1989KO SKY-KANPAINA

### ASTEBUKAERATARAKO IRTEEREN PROGRAMA

URTARRILA  
14-15 FORMIGAL  
21-22 CAUTERET  
28-29 CAUTERET

OTSAILA  
04-05 FORMIGAL  
11-12 FORMIGAL  
18-19 CAUTERET  
25-26 FORMIGAL

APIRILA  
08-09 FORMIGAL

MARTXOA  
04-05 CAUTERET  
11-12 FORMIGAL  
18-19 CAUTERET

### PREZIOAK:

FORMIGAL: Irteera 5'00etan.

Larunbatean 7.500pta  
Autobusa+“ Nieve Sol” Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

CAUTERET: Irteera 4'00etan

Larunbatean 7.950pta.  
Autobusa + “ L'Ecourelle ” Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

—Aste Santuko irteera (Martxoaren 24 etatik 27ra) Frantziako Pirineora (Prezioa jarri gabe)

—Pazko asteko irteera Alpesetara (Martxoaren 25etik Apirilaren 1era)


42.000 pezeta TICNES eta VAL D' ISSERE

autobusa+Le Lac apartamentua+Erremonteak+Tasak

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Besaiden, astelehen, astearte eta asteazkenetan 18'30etatik 19'30etara.

Tfnoa:79 84 74

# “Mondragonés”, frontoietako jaun eta jabe



Juan Bautista Azkarate Egaña,  
“Mondragonés” (1891-1965)

Batzuek diotenez, gaur partidu profesionalean erabiltzen diren pilotamotak (lehengoak astunagoak ziren) erabiliz gero, “Mondragonés”ek paletako frontoietan jokatu beharko zukeen.

Bere indarra, beronen besoen potentzia, kantxan egoten jakitea, eta bere bistagatik mitoa izatera heldu zen. Inoiz ez zuen, bestalde, espektakularitatearen bila joateagatik, bere estiloa aldatzen. Eta hau arrazoi batzuek: beti zen espektakularra.

Bere nagusigoa 1917an hasi zen “Zapaterito de Lekeitio”ri txapela kendu zionean. Esan behar orduan arautegi ofizialik ez zegoela, eta horrela jokatzeko ziren finalak: txapel-dungaiak bi eskuz neurtzen zituen indarrak, txapeldunak esku bakarra erabiltzen zuen bitartean. Aspiranteak irabaziz gero, txapeldunarekin baldintza berdinetan jokatzeko eskubidea bereganatzen zuen.

Atano III agertu zenean, “Mondragonés”ek galdu zuen bere nagusigoa. 1926 urtea zen. Atano IIIk 22 urte zituen, “Mondragonés”ek, berriz, 35. Hiru bider jokatu zuten txapela lehian. Aurkaketa hauek leku berezia dute Pilotaren Historian. Lehenengoan, Atano IIIk bi eskuak erabiliz, eta “Mondragonés”ek eskuinekoa bakarrik, azkoitiarrak 22-12 irabazi zuen. Hurrengo bi partidutan, biak bi eskuz, azkoitiarra nagusitu zen berriro (22-19 eta 22-12). Atanoren nagusigoak 22 urtetan iraungo zuen.

## Pilotarien maisua

1942an, 51 urte zituelarik, erretiratu arte, gogoz jarraitu zuen jokatzeko. Egunero entrenatzen zuen, eta gazteei ordaintzen zien berarekin entrenatzeagatik. Horrela, Juan Bautista maisutzat zutelarik, “Zurdo de Mondragón”, Bolinaga, Patri Egida-zu (gero futbolaria izango zena) eta Arriaran anaiak hasi ziren pilota munduan.



“Mondragonés” eta Mariano Jauristi,  
“Atano III”, batzuren ustetan inoiz izan  
diren pilotaririk onenak

Eta bukatzeko, hona hemen, hil zenean Basarrik beraren omenez eginiko bertso batzuk:

Plazan agertzen zinan  
lerden eta eder,  
Bapo zaintzen zenitun  
zabal eta bazter.  
Zu pelotan ikustez  
ezin zeiken asper,  
Berdiñ berdiñak zifun  
eskubi ta ezker.

**BIONAS**

Zurgin Kantoi, 2      Tfnoa: 79 20 04      ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 797300-8396  
Telefax: 793412

## Xabin Egaña: Fotokopiaren artea



Urtarrilaren 16an hasita, eta Otsailak 15a bitartean, Xabin Egañaren lana dugu erakusgai "Galeria 44" aretoan. Esan behar oñatari honek iaz artista nobelen saria eskuratu zuela, margo sailean.

Gure herrian azkenaldi honetan antolatu diren erakusketen artean, honako hau da gehien txunditu gaituena.

Laburra da, baina bizia. Guztira 14 obra, neurri haunditakoak gehienak. Arte fresko bat dakarkigu Xabinek, gaurkoa, bitxia, batez ere artistiko bide nahiko berri baten erabilpena dela eta; fotokopearena, ale-

gia. Xabin tresna hau bere funtzionaltasunatik banatzen saiatzen da, espresio-bide bat bihurtzeko asmotan.

Guztien artean bi obrek hunkitu gaituzte bereziki: Egaña beraren erretrato-fotokopia sorta, eta "El Greco-ri omenaldia" saila. Bietan zerbait baztertua dagoen teknika bat darabil: enkaustika (bizantiarrek eta gerora berpizkunde garaiko gizonak erabiltako teknika; koadroak egiteko olio eta argizariak erabiltzean datza).

Lehenean, Egaña bere musua du espresio-bide. Aurpegiak laukitxotan moldatzen ditu, Andy Warhol-ek Marylyn-ekin egin zuen antzera, baina azken honen "Pop" zama alden-duz. Bereak askoz espresiboagoak dira, bortitzak, zakarrak. Gizakumearen barne borroka adierazten dute, gizartearen kanpo erasoaren aurrean (zapalkuntza, askatasunik eza, etab.). Musuek begiak ixen dituzte, garden-tsu antzematen direlarik, berauen

gainean argizari mintz fin bat ezartzen bait du. Egañaren esanetan, es-talki hau kanpo eraso hauengandiko babes bat bezala hartu behar da.

Harritzen gaituen bigarren obra "El Greco-ri omenaldia" lan sorta da. XVI. mendeko artista haren "Orgaz-ko kontearen hiletak" lana gogorarazten digu sail honek. Honetan, aurrekoak bezala, bi mundu ezberdin batera agertzen zaizkigu; mundukoia batetik, konte hila duena ordezkarri, eta espirituala bestetik, Egaña zirriborro-hodei baten bidez itxuratzen duena. Erakusketaren osagarri bezala bi lan abstrakto ditugu, non artistak ehuna pintatzen, marratzen, zikintzen duen; margolariaren espresio aske bat, paisaia bat behatzerakoan adibidez.

Esan legez, erakusketa laburra baina bizia.

Etzazuela joaten utzi!

Mikel Arregi.

**ELHUYAR** KULTUR ELKARTEA

Posta kutxa 361  
Tf: (943) 429945  
20080 - DONOSTIA

**LIBURUAK**

*Irakaskuntza ertainetan edo Unibertsitatean bazabiltza eta euskara baldin bada zure hizkuntza kontsulta ezazu gure katalogoa*

**HEMENGO JENDEAK HEMENGO JENDEARENTZAT  
EGINDAKO LIBURUAK**

# Folk-etik musika errodunera 1



Badakit, bai, gaur egun folk-az aritzea bitxikeria dela, ia-ia arkeologia egitea, hain daude urrun folk-a indarrean egon zeneko garaiak. Eta badakit, baita ere, folklore hitzak berak nolabaiteko zentzu kaxkarra hartu duela, denbora pasa ahala. Norbaitetaz folkloriko dela esatean, ez dugu behintzat pertsona hori go-raipatu nahi, ziur.

Baina folk-a gauza handia izan da. Etiketa horren pean, musika eder ugari sortu zen 60. eta 70. hamarkadetan. Gogora ditzagun, adibidez, Pete Seeger, Woody Guthrie edo Bob Dylan bera, Estatu Batuetako folk-aren izen ospetsuen artean. Edota Fairport Convention, Pen-

tangle, Chieftains, Planxty eta De Dannan, Britainia Handia eta Irlanda aldean. Eta Alan Stivell Britainan, Jose Afonso Portugalen, Kolinda Hungarian edo Toni Cosenza Napolin. Eta Benito Lertxundiren diska batzuk edo Oskorriren urte luzetako lan bikaina, gure artean.

Musikari guzti hauek -eta zerrenda ez luzatzearren aipatu gabe gelditu diren beste askok- badituzte ezaugarri batzuk amankomunean. Oinarrian, bakoitzak bere herriko musika tradizionalaz egindako ikerketa sakona, jatorrizko ondare kulturalaz jabetu arte. Horrela lortu da, kasu askotan, ahozko transmisioaren ahultasunez erdi galdurik zeuden kanta zaharrak eta musika-tresnak guregana iristea.

Elementu horiekin, folk kantariak musika estilo berezia sortu zuten. Oro har, musika akustikoa zen, kitarra edo arpa oinarritzat zituena, atsegina, gozoa eta alaia askotan, baina mingotsa ere bai inoiz. Kasu batzuetan,

tradiziotik jaso bere hartan ematen zen eta bestetan era landuagoan, garaiko zenbait osagarri erantsiz.

Musika molde honek, esan bezala, arrakasta handia lortu zuen 60. eta 70. hamarkadetan. Alde batetik, garai horretan izen handi ugari sortu zelako, baina baita ere garaiko gazteriaren estetikari eta bizitza-estiloari ondo egokitzen zitzaielako. Hippyen garaia zen hura, eta gazte naturazale eta bakezale haiek atseginez hartu zituzten folk-aren molde gozo eta sentiberak. Gero kultura urbano berriaren baloreak nagusitu ziren, eta hor etorri zen folk-aren gainberakada.

Dena den, emaitza zoragarriak utzi dizkigu folk-ak, gaur eta beti gozamen-iturri izango diren diskak. Eia herentzia ederra ere bai: folk-aren ildo beretik doan eta nolabait bere ondorio den musika erroduna. (Jarraituko du).

Mikel Irizar

## ENTZUN GAITUZUE? BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09

## BRANKA JATETXEA

Eguneko Menua  
eta karta

Zarugalde 1 tfnoa 796010

## TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalca, 8  
ARRASATE

## OSTARKU DANTZALEKUA

Hezurak astintzeko lekuri proposena

Urbarri Etxabidea 8 - Tfnoa: 79 84 83

## Ehiza: Erbia

Ehiza garaia denez, hemen doakizue izena eman nahi ez duen bati jasotako errezeta:

Osagaiak: Erbia (gaztea ahal dela), Olioia, 4 bat kipula gorri eder, Berakatz buru bat, Uruna, Gatza, Litro erdi ardo beltz (ahal denik eta onena), Ura (ardoa baino zerbait gutxiago).

Erbia lau edo bost egunetan zintzilik eduki behar da kanpoan, okela pixka bat bigun dadin. Zaititu eta gatza bota. Ondoren urunetan pasatu.

Zartaginari 2 berakatz ale oliotan jarri eta ondo berotutakoan erbia erre.

Aparte, kazuela zabal baten hondora, erabili dugun oliotik apur bat bota, zabaldu eta bertan erbia ipini. Tapa jarri eta erbia su gainean eduki su motelean.

Bien bitartean, lehen erabilitako zartaginari kipula eta berakatz egin polito-polito eta asko eragina.

Gero, ardoa eta ura zartaginara bota, harik eta saltsa apur bat sendotu arte.

Guzti hau puregailutik pasatu, sekula ere ez irabiagailu edo bati-doraz, eta erbiari gainera bota.

Egosten utzi ordu t'erdian edo bi ordutan. Mahaira atera eta jan!

## Zizka-Mizka

Urtarrilaren 6ko HEMEN egunkariak jakitera ematen zenez, japoniarrek ez ei dute elektronika kontuetan bakarrik iker-tzen, eta landareekin ere hasi ei dira. Gauzak horrela, tomatea eta pepinoa nahastu nahian ei da-biltza, "tomapinoa" edo horrelako zerbait sortu guran.

Ez dakigu zein kolore izango duen, are gutxiago oraindik gus-toa zelakoa izango duen.

Badirudi oraindik ikerketa-prozesua amaitu gabe dagoela eta Ekainera arte ez dutela erakutsiko beren fruitu preziatua.

Argi dago berrikuntza handiak ikusteko jaiok garela.

*Morokil Taldea*

# ORTZI

## ERRETEGIA

### ANGIOZAR AUZOA

BERGARA, Tfnoa: 76 22 68

## Eroski Kontsumatzaileen Komitea

### Informazioa eta Formazioa


Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda



## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala  
Tailerra  
Erakusketa

Tfnoa: 79 97 12



Auto-Eskola  
PEÑACOBA

Zarugalde, 46  
Tfnoa: 79 29 93  
79 14 01

ARRASATE



## A U Z O - L A G U N

Gure **JANARIN** jaki prestatuak eta aurreprestatuak aurkezten dizkizugu.

Arrasaten, oraingoz, Uribe Auzoko **EROSKI** supermerkatuan aurkituko dituzu.

# Kutsadura

Orain dela hilabete batzuk, FAGOR lantegi batean, Gargartzan hain zuzen, ur-araztegi edo ura depuratzeko planta bat inauguratu zuten; beraren balioa, dirutan, zero askoko zifra izango zela ziur gaude.

Baina inizatiba hau, beste enpresek ere ez badute eredutzat hartzen eta ez badute antzera jokatzeko, alferrikakoa izango da hainbestearainoko inbertsio hura; agian, eta bakar-bakarrik, ibaiaren zatitxoren bat garbi agertzeko, edo hobeto esanda, zikinkeria gutxiagorekin... Zeren eta, beheragoko beste lantegietan, orain artean bezalaxe, ibaiaren funtzio nagusia gogoraraziko bait

digute, hau da, hiri eta industrien zabortege izatea, hondakin guztiak hara botatzen ditugu eta. Lanera joan-etorria egiterakoan, ez zaigu harrigarria gertatzen -ohituta bait gaude- ibaiak kolore ezberdinetako ura daramala ikustea, eta ez gara txundituta geratzen ur hori batzuetan berdea, besteetan gorria, edo, zergatik ez, esne kolorekoa baldin bada. Industrializazioaren bitxi-keriak!

Dena den, Iturripen bertan badago, irakurri nahi duen guztiarentzat "Zaindu ibaia, zurea da" dioen kartela. Negargarria benetan!

Ez da, ordea, ibaia bakarrik

kutsaturik dagoena. Arrisku handia sortuz, ingurugiro edo eguratsa ere kutsatua dago, eta zenbait lantegi da horren errudun.

Seguritatea eta higieña zaintzeko komitea, lantegi horietan ere badagoela ziur nago; eta kanporatzen duten kutsadura berberorri neurri jakin batetik gora lantegi barruan igotzen ez uztea, komite horren egin beharra izaten da.

Langileen osasuna zaindu egin behar da, eta ondo dago hori, noski! Baina, gainontzeko hiritarron osasuna, nork zaintzen du?

Eta langile horiena, lantegitik irteten direnean?

*Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso*

## GABINETE MEDIKOA

**Medikuntza  
Digestibidea  
Endoskopia  
Ekografla  
Analiak**

Ferrerias, 1.  
Tfnoa: 79 15 08

## Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8  
Tfnoa: 79 63 34

## TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak  
pintxo eta mokau  
gozoak

## Memesa

**Arrasate**  
79 42 22

## Agirre Miota Gestoria

Zerga deklarazioak  
Erdiko kale 28, 2.  
Tfnoa: 79 34 33

## KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea, 7 Tfnoa: 79 73 88

## ARRASATE PRESS

astero zuekin

## ETXEBIZITZAK

- Pisia hartu nahi da errentan. Tfnoa. 799525 (gauetz)
- Neska ingelesak pisuan bizi nahi luke beste batzuekin Arrasaten. Tfnoa. 762575 (Bergara). Goizez deitu (DENISE).
- Neskak pisuak nahi luke Arrasate edo inguruetan beste batzuekin bizitzeko. Tfnoa. 781189 (gauetz).
- Merkataritzarako lokala hartu nahi da errentan. Nahiago herriaren erdigunean. 100 m2. Tfnoak. 794569—798821.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da. 38m2. Uribe Auzoan. Tfnoa. 790870.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa. 798637.
- Pisia salgai Uribe Auzoan. 4 logela, egongela, 2 bainugela, garajea eta trastelegia. Tfnoa. 793612.
- Erdiko kalean pisua salgai (9—2º). 3 logela, sukaldea, bainugela. Tfnoa. 796765.
- Merkataritzarako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m2; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Saldu edo errentan eman nahi da 1. pisua, herriaren erdialdean, apartamentu, estudio, bulego, kontsultategi...izateko presatua. (eta atikoa, etxe berean). Tfnoa. 795125
- Pisia salgai, altzariekin, Makatzenan (5—4º A) Tfnoa. 799357
- Garage bat errentan eman nahi da. Uribarrin, kotxe birentzako lekua du. Urtarrilak 20 baino lehen.

## LANA

- Deba Beheko enpresa batek Marketing Saileko Zuzendari-postua bete nahi du. Interesatuak, 57. postakutxara bidali behar dute beren curriculum es-

kuz idatzita, bertan 17 DM erreferentzia ezarritz.

- Eibarko Udalak Administrazio-postu bat bete nahi du, oposizio-lehiaketen bidez. Oposizio-lehiaketa arautzen duten oinarriak 1988ko Azaroaren 14ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (223. zka.). Eskerak aurkezteko epea, 1988ko Otsailaren 10era arte, Eibarko Udaletxean.
- Eroski Koop. E.ak bi Publizitate-Teknikari behar ditu. Interesatuak, Urtarrilaren 19a baino lehenago, beren curriculum eta telefonoa bidali behar dituzte. Helbidea: Eroski Koop. E. (Giza-Baliabide Saila), San Agustin Auzoa, 48230-Elorrio.
- Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazioak Goimailako Teknikariak behar ditu ondoko lanpostu hauek betetzeko: Zerbitzu-Ikustatzailea; Giza-Baliabideak; Informazio Sanitarioa; Planifikazio Ekonomikoa; Gaixoen Atentzio-Zerbitzua. Eskari-orriak eta gainerrako informazioa: H.A.E.E-ren Egoitza, Unibertsitate Zaharra, Oñati.
- Hydraulix Ring, S.L.ak bi lanpostu hauek bete nahi ditu Elgoibarren: Fabrikazio-teknikaria eta montadorea. Interesatuak deitu 74 21 30 telefonora, Solano Jau-nagatik galdetuz.
- Igeltseroak behar dira: autonomo kontratatuak. Soldata elkarrekin erabakitzeke. Interesatuak deitu 71 74 61 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Tfnoa: 79 35 44.

## SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztailekoa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Eskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 79 09 00 (Jose Felix)

- Ia estranaturik gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62
- Garaje bat alokatzen da Uribarrin, kotxe bi sar daitezke bertan. Tfnoa: 79 66 38 (6,30etatik 7etara)

## IKASTAROAK

- C LENGOAIA Arrasateko IMI zentroan, Otsailaren 6tik 17, Arratsaldeko 4etatik 8etara; Programa: C Lengoaiaren deskribapena; motak, ordenadoreak, adierazpenak, fluxuaren kontrol-sententziak, C funtzioak eta egiturak, sarre-rak eta irteerak.
- Informatika: sarrera. Arrasateko IMI zentroan, Urtarrilaren 30etik Otsailaren 3ra, arratsaldeko 4etatik 8etara. Programa: informatika sarrera, testu prozesadorea, orri elektronikoa eta datu basea.
- Adimen artifiziala eta sistema espertoak. Programaren laburpena: Adimen artifiziala, sarrera, teknikak eta lengoaiak.
- Sistema espertoak: diseinu, praktikak, diagnostikorako sistema espertoak zelula malgutan. Informazioa eta izen ematea Arrasateko Ikerlan Kooperatiban. Tfnoa.: 79 48 11.
- Ikastaroa UNEDen. Bergarako UNEDeko historia-departamentuak antolatuta, ikastaro bat izango da bertan "La ciudad y la tierra prometida" gaiari buruz, Urtarrilaren 28tik Martxoaren erdialdera.
- Arrasateko Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroak honako ikastaro hauek antolatu ditu: Sexualitatea, kontsumoa, Argazkigintza, Antzerkia, Artea, Historia, Historia (amerikako aurkikuntzari buruzko ikastaro monografikoa. Interesatuak). IHHk Ferrerías kalean duen lokaletik pasatu behar dira



## ARRASATEN HILAK

Pedro Zubiberri Olazar  
urtarrilak 25ean

Creacen Ajuria Gurrutxaga 79 urte  
Urtarrilak 26an

Jose Antonio Cruz Carmona 77 urte  
Urtarrilak 26an

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA  
TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Zehar kale estalia 1, 1b 20.500 ARRASATE Tfnoa 797164



## Izarrik gabeko gaua

### I. Kapituluua.

Mahatsa ubeltzen ari zeneko garaian heldu zen gizontxo hura Oltza bailarara. Eta bitxia zen benetan agertzen zuen itxura, bere oin minduek lur hura zapaltzen zuten estraineko hartan; txikia zen oso, eta gizena, are gehiago iduriz lepagainean zeramatzan fardo astunak zirala eta. Horrek eta erabat estaltzen zuten larru zahar hautsezatuek, erretzeko pilatzen diren sastraka lehor horitako baten antza ematen zioten.

Zur eta lur, ikusi zuen herritar orok atzetik jarraitu zion lelotuta. Plazara iritsi zenerako begi-zabal mordoxka dexentea zuen erakarria, inoiz handik pasatuko juglarerik lortu ez zuena. Bazirudien jakinminaren mamua ernea zela bapatean, Oltzako bazter guztietara hedatuz.

Patinerantz zeramaten urrats motel, geldoek; agurearen ibilera pausatuz joan zen, erabat eten zen arte, ezen urtetan sartua bait zen. Herritar guztien soak nabaritzen zituen bere gorputza zeharkatzen, gezi zorrotzak bailiren.

Gizontxoak bizkarrera lotuta zeraman fardel zamatsua askatu zuen, pixkat horrela bere zuzentasunera itzuliz. Zerurantz altxatu zituen begizat zeuzkan bi zirrikitu beltzak, eguzkiaren argitasun etsaiari aurre eginez bezala, hontza ikarati baten antzera. Bere egarria ase zuen ondoren eta baita patineko ur atsegin-garriaz musua freskatu ere. Banan-banan, begiradarekin, bere kideak izango zirenak aztertu zituen, zeren bailara galdu honetan geratzeko asmoz bait zetorren.

Aspaldian erabiltzen ez zen borda bat egin zuen bere etxe. Ez zen ordea, bere lur-sailean sustraiak errotuta dituen nekazari hoietako bat. Harat-honak zebilen beti, fardel haudia lepagainean, bailararen mugak etengabe zeharkatuz; merkataritzan, bere esanetan, baina inork ez zion inoiz ezer saltzekorik somatu; herri hartako inork, bederen.

Hala, egunak poliki baina etengabe jausten ziren, itoginetako ur tantak bezala, eta geroz eta goizago oheratzen zitzaien ekia. Zuhaitzetako hostoak lurra hartuz zihoazen neguaren igarotzeko. Hotza zen kaleetako ibiltari bakarra; edo, zehatzago, hotza eta "Luma", mahatsak ubeltzen ari zireneko garaian heldu zen gizontxoa eta arratsero bueltatzen zena, auskalo nondik.

Egunak laburtuz zihoazen, urtero bezala, neguaren iluntasuna berriro ere nagusitzen. Bainan negu hartan egunak etengabe joan ziren laburtuz, gauak eguna guztiz irentsi zuen arte.

Orduan ehiztaririk ausartenak ere izutu ziren eta batek baino gehiagok hanka egin zuen handik, Zeruetako haserre hari ihesi nahian. Bainan itzuli ziren berriro alde egin zutenetarikoz batzu eta kontatu zuten Oltzan besterik ez zela gaua; bailararen mugak igaro bezain pronto aurkitu zitekeela eguna. Eta hala egiztatu zuten. Bailara mugatzen zuten mendi muinoetatik ikusita, Lurretik ezabatua zirudien Oltza; hustasun ilun bat ageri zen berari zegokion tokian, han, kirikari harrituaren begiraden pean. Atzean, ordea, Sarobeko bailarak bere osotasuna gordetzen zuen, ezertaz jabetu gabe.

Jeitsi ziren ostera Oltzatarrak ilunpean murgiltzera, nahiz eta gogoak gibeleratzera bultzatzen zituen.

Hotza jasangaitza zen, negua zen partez, bainan baita giroa epelduko zuen eguzkirik ez zelako ere.

Bildu ziren guztiak plazan, su baten inguruan, eta erabaki zuten mahatsa ubeltzen ari zeneko garaian heldu zen agurearengan zegoela ezbehar haren iturburua, madarikazioa zuela ekarria haranera.

Biharamunean bertan agureari bost herritar joan zitzaizkionean, arratsari zegokion orduan, bailara utz zezala agintzera, honek ez zuen ezer esan. Bere ondasun urriak bildu eta, berriz ere fardel astuna leporatuz, bidezidorretik abiatu zen, soa lurretik altxatu gabe.

Alabaina, errotariak plazako bilera hartan sumatu bezala, argia ez zen itzuli. (Jarraituko du).

*P. Mokordo*

**ARRASATE  
PRESS**

Zure publizitatea egiteko lekurik  
egoki eta merkeena herrian

**M** **AREN** **A**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07  
Aretxabaleta



**KILE-KOLO**

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE

■ **All aboard! Denak barrura!** Bi ordutan barrena musikaren itsasora hurbilduko gaituen "Kostaldeko Trena"ren makinista zaharrak gonbitea luzatzen digu. All aboard! Arratsaldeko bostak dira Euskadi Irratian eta berehala entzungo duzue Martin Tejeriaren ahots pausatua musikaren inguruko azken berriak ematen, doinu eta soinu aukerarik zabalena eskainiz. Gustatzen zaidan esateko modu berezia du Martinek, aspaldi Radio Nacional de Españan gogoko nuen Angel Alvarezen ohiartzunak dakarzkidana. Baionako Gure Irratiak ere bat egiten du egunero Euskadi Irratiarekin irratsaio honen zati bat emateko. Ez da kasualitatea. Zuk ere, gusto baduzu, egunero arratsaldeko bostetan Euskadi Irratiko geltokian "Kostaldeko Trena" harrapa dezakezu. Ondo Ibili!

■ **Ezbaian.** Jose Ramon Beloki hasi zen ETBko saio honekin eta, oro har, maila ona lortu zuelakoan nago. Moderatzaile eztabaidatua zenbait kasutan, hala ere Belokik ederto asko erakutsi zigun bere savoir fair. Sasoi honetan Karmelo Somoza eman dio segida Belokik utzitako programari eta orain arte behintzat ezin esan asmatu duenik. Batzutan betiko topikoetan jausi da. Bestetan ranking-aren hirugarren mailan dauden pertsonaiak eraman ditu. Zenbaitetan badirudi kikildu egiten dela gonbidatuen aurrean. Ea aurrerantzean zorte hobea duen!

■ **Laino guztien azpitik...** Hutsarte eta interferentzia larregitxo gertatu zen nire gustorako Iñaki Perurena 309 kilotako harria zuzenean jasotzera eraman zuteneko programan. Eskerrak Iñaki Perurenari berari. Bere marka hautsi baino ez eta "kilo bat asko da?" Amatiñoren galderari zera erantzun zion: "kilo bat, 1000 gramo, baina 309 kiloren gainean, izugarri". Horrelakoxea da leitzarra.

*Joxe Aranzabal*



## gusto baduzu

■ **Sport Auto.** Motor, kotxe eta kamioi zalea bazara, saio honek emango dizu mundu horren inguruko berri: azken nobedadeak, rallyak, lehiaketak, sailkapenak, elkarrizketak, etab. Gerardo Punteren eskutik larunbatero, arratsaldeko 18,15etan.

■ **Hemen eta Munduan.** Munduari begira ETBk ireki digun leihoa. Askotan mundunduko produkzioak, baina gehienetan saio ikusgarriak eta interesgarriak. Asteazkenero gaueko 23,15etan. Errepikaldia ostegunetan arratsaldeko 15,10etan.

■ **"Roberts Jauna"** pelikula ikusteko aukera ETBn. Zuzendaria: John Ford, Mervyn LeRoy  
Antzezleak: Henry Fonda, James Cagney, William Powell.  
Pelikula honek II. Mundu Gerran, erasoan sartzeko grinaz dagoen itsasontzi batetako bizimodu, egoera, eta bordako egonezina agertzen digu.

### OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

**Urtarrilak 20, Ostirala**  
3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)  
**Urtarrilak 25, Azteazkena**  
4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)  
**Urtarrilak 26, Osteguna**  
1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

### SORGINA IRRATIA (105 F.M)

TFNOA: 79 82 68

**Urtarrilak 20, Ostirala**  
7-9 KK Profe puag  
7-9 Piramyd  
10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua  
11,30-12,30 Beltza blues klub  
**Urtarrilak 21, Larunbata**  
8-9 Onda katxondoa  
9-11 Dana ondo dabil  
11-1 Banpiroak  
**Urtarrilak 22, Igandea**  
10-11 Puuagg!!! (Musika eta kontra-informazioa)  
**Urtarrilak 24, Asteartea**  
7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat  
8-10 Pufa kalufa  
10-11 Bai zera!  
11-12 Irrintzi  
**Urtarrilak 26, Osteguna**  
1-2 Gaurko bazkaria  
7-8 Exterminioa helburu  
8-9 Mara-mara (Emakumeen Asanblada)  
9-10 Itxungitako dragoie (AED)  
10-11 Amen Jesus!  
11-12 Gau erdiko klasikoak

J O D N O Z I L E M  
 B I T O J G U D N A  
 T R O A M D T O Z R  
 T U T E R A G T I K  
 U Ñ U M F R O B H I  
 H E S A I G A P E N  
 Z A L U N T A Z I A  
 O L G A R P P R I L  
 A I Z A R N A K I L  
 I R R E B I R R E H

**Euskal herria ezagutuz:**

Nafarroa bost merindadetan dago banatua.  
 Bila itzazu beraietako hiriburuak.

**Bertako hitz ahaztuak:**

Berriz ere Oñatira goaz gaurkoan, handik "oso" esateko modu ez hain ezagun bat datorkigu eta. Dirudienek ekialdeko "agitz"en aldaki bat da. Bila itzazu ondoko zerrendan berau osatzen duten lau hizkiak.

Gaizto.....3  
 Sistada.....4  
 Adur.....1  
 Zango.....1

Soluzioak: 18. orrialdean.

P. Mokordo

**Horoskopoa**



**ARIES**

(Martxoaren 21etik  
 Apirilaren 20ra)

Agintzen dizuten gutzia gaur egiten baduzu, bihar gehiago aginduko dizute. Erne ibili eta zure eskubideak defendatu zapal-tzailearen aurrean.



**LEO**

(Uztailaren 23tik  
 Abuztuaren 23ra)

Ez galdu zure indarra ez dagokizun gaietan. Oraingo egoeran ez zaizu komeni zure helburuak ahaztea, baina utzi denborari zue ezin duzun eragina izan dezan.



**SAGITARIUS**

(Azaroaren 23tik  
 Abenduaren 21era)

Aspaldi honetan egiten ari zaren gastuek zure aurrekontua desorekatuko dute, Urtarrileko aldapa Otsailean igarriko duzularik. Hasi ba zure beharrak gutxitzen



**TAURUS**

(Apirilaren 21etik  
 Maiatzaren 20ra)

Ez duzu lotsarik. Zergatik jasan behar dute besteek zure gustu txarra? Jarrera horrekin jarraitu ezkerro lagunak galduko dituzu. Galdetu zure ispilu majikoari non dagoen errua.



**VIRGO**

(Abuztuaren 24etik  
 Irailaren 23ra)

Astebukaera honetan ez duzu bestean izan zenuen bezain zorte txarrik izango. Hala ere, ez gehiegikeriarik egin, norbait zure ondoan egongo bait da kontrolatzen.



**CAPRICORN**

(Abenduaren 22tik  
 Urtarrilaren 20ra)


Nahiz eta zure urtebetetze eguna igaro den, oraindik ez dituzu opari guztiak jaso. Arazoak ere konpontzen ari zaizkizu eta datozen egunak atseginak izango dira.



**GEMINI**

(Maiatzaren 21etik  
 Ekainaren 21era)

Barruan daramatzazun bizkiak ados jartzen ez badira, zure burua ere nahastuko dute. Erabili ezazu ba burua istilu hauei irtenbide egokia emateko.



**LIBRA**

(Irailaren 24etik  
 Urriaren 23ra)

Zaindu zure hortzak, bestela galduko duzu irribarri zoragarri hori. Zure baitan egosten ari diren proiektuak aurrera eramanez eta kezkatzen zaituen arazo txiki horri ez kasurik



**AQUARIUS**

(Urtarrilaren 21etik  
 Otsailaren 19ra)

Zergatik zaude haserre? Mundu osoa zure esanetara ez badago ere denak ez dira etsai. Gozatzen hasi bizitzak eskaintzen dizunarekin, ez da gutxi eta.



**CANCER**

(Ekainaren 22etik  
 Uztailaren 22ra)

Ez zaitetz hain beldurtia izan. Besteek zuegan duten konfidantzak ez dizu huts egingo. Epe laburrera arazoia eman beharko diezu, baita txanpan kopak ordain ere.



**SCORPIO**

(Urriaren 24etik  
 Azaroaren 22ra)

Apurketa arriskutsuan zaude, edozein apurketa gerta dakizuke. Ona nahiz txarra izan daiteke baina gero ondo aztertu beharko duzu eta ekarri diezazkizukeen ondorioak aurrikusi.



**PISCIS**

(Otsailaren 20tik  
 Martxoaren 20ra)

Joan zen asteko martxak jota utzi zintuen baina ez da hainbestera. Aste osoa izan duzu errekuperatzeko eta bada ordua esna zaitzen zure inguruan gertatzen ari denaz jabetzeko

**Lehen eskuko, zenbat ibigailu berri erosi dugun arrasatearrok?**

Azken lau hilabeteotan, hau da, Irailetik Abendura bitartean Arrasaten 281 ibigailu berri erosi da, honela banaturik:

- 243 turismo
- 30 kamioi edo furgoneta.
- Traktore 1
- Erremolke 1
- 6 motor.

**Zein markatakoak izan diren kotxe erosi-enak?**

Markaz marka baturik honela sailka daitezke, ehunekotan, epe horretan erosi ditugun kotxeak, gehienetik gutxienera:

- Renault %21
- Ford %18
- Opel %18
- Citroen %10
- Peugeot %7
- Volkswagen %6
- Fiat %5
- Beste batzuk %15

**Hilabeteka zein marka izan den salduena?**


- Iraila: Renault
- Urria: Renault
- Azaroa: Ford
- Abendua: Opel

**Zein eratako jurismoak izan diren gehien erosi ditugunak?**

Berriz ere epe berdiner

mugatuz, honako hau izan da sailkapena:

- Opel Kadett %11
- Opel Corsa %10
- Ford Orion %7
- Citroen Ax %6
- Ford Escort %5
- Ford Fiesta %5
- Renault 21 %5
- Renault 5 %5
- Volkswagen Golf %4
- Citroen Bx %4
- Renault 19 %3
- Peugeot 405 %3
- Peugeot 309 %3
- Seat Ibiza %3
- Peugeot 205 %2
- Ford Sierra %2
- Wollsvagen Polo %2
- Beste batzuk %20



**ARRASATE**  
**KIROLAK**

Deba garaiko kirol dendarik  
garrantzitsuena

Kirol bakoitzarentzat,  
erantzun egokia!

**KIROLAREN ETORKIZUNA ESKU ONETAN DAGO !!!**